

Atxik Anje!

TXILLARDEGI



BIZKAIKO Diputazioak bere azken hitza eman du: ez du hemendik aurrera Anje Duhalde kantari iparratarra kontratatuko. Zergatik hori? Joan den urrian, 'Herriz Herri' ekin-tzakoan eskaintako kontzertuan, Gurutze Yantzi eta Xabier Kalpartsororen heriotza lagzgarriak salatu zituelako.

Hori hori, jakina, 'aviso para marineros' horietakoa da: hemen, jaun-andereak, debekatuta dago bizia ere eman duten gudarien alde hitzik esatea. Hemen txalo eta losentxak oro (eta kreditu publikoak oro ere bai, noski) herri honen kontra, are torturaren bidez ere, ari direnen alde. Eta kitto.

Xabier eta Gurutze aberkide miresgarriak torturapean hil zirela? «Un puro y estricto accidente democrático».

Anje Duhalde debeketzea: bidezkoa, omen. Nahiz Duhalde Euskadi Askatuaren profeta izan.

Herri honek besterik behar omen du: 'cante hondo-ko' figurak, adibidez; ETBko aintzindari bihurtuak. Herri honek 'teatro español-eko' konpainiak behar ditu, arrapaladan gure herri eta hirietara deitua. Herri honek zarzuelak behar ditu, eta sevillanak, eta 'post-nacionalismo-aren' loriak kantatzen dituzten ustelak. Hauek ez ditu Bizkaiko Diputazio 'foralak' gaitzetsiko. Ez horixe! Zaudete lasai!

Hegoaldeko abertzaleok ahalketarik gaudek, Anje, Atxik, otoi! Eta 'paradizu' hau pairaitzen dugunoz, orhoiti!

Elkartasuna ala dirua nagusi?

XAN KOSKARAT



1993ko gertakari bortitzen ondotik, arrantzen munduko jendea egoera berdintsu batean aurkitzen da. Garai hartako ekinetze esker eskuratu zituzten laguntzak ondorioz gabekoak izan ziren. Gaur egun oraindik kenka txarrago batean kausitzen dira. Erran dezaiegu nekazariak jasaiten dutenaren heineko egoera jasan behar dutela.

Alabainan, arrainaren prezioa, atxuriaren gisara, errekarra doa eta hori kanpotik etortzen den arraina ainitzez merkeago etortzen delako. Inportazio sistema da auzitza.

Betiko arrazoina... Merkatuari doakion legea dugu nagusi. Liberalismoak merkatu ideki eta ahal bezain zabala nahi du. Prezioa da konda, prezioa da lehen... Gainerateko arrazoinek ez dute ezer balio. Gaur badakigu, edozein produktioan, nunban aurki dezakegula hemen baino merkeago egiten diren gauzak. Dirua eta merkatua nagusi ditugu.

Gaur egun nekazari eta arrantza mundua joak daude. Bihar aldiz, edozein eremu buntitua izango da ofizialdegi ala komertzio arloetan.

Lehen urrats batean, behar-beharrezkoa da inportazioen kontrolatzea eta ez diruaren izearen edozein gainazal egitera uztea. Beharrezkoa da ere elkartasuneko harremanen sorraraztea, gaur arrantzariek bai nekazariak zepo hortatik ateratzen laguntzeko eta bihar gure herriari ahal bezanbat bere geroa segurtatzeko.

LA VANGUARDIA

Gonzalezzen hiru mezuak

Lehendakaria atzo prentsaurreko batean agertu zen —gehiagotan egin beharko lukeen gauza— Gobernuaren bileraren ondoren, eta hiru mezu zabaldu zituen. Aurrenekoaren helburua Pujolen laguntza parlamentarioak hainbat sektoretan sortzen duen mesfidantziari amaiera ematea izan zen. Gonzalezek baieztapen birbilba egin zuen esanez laguntza horrek inongo eroso sentitzen dela eta inondik ere aritmetika parlamentarioari dagokion kontua izan gabe helburu handinahiagoa duela: na-



Serbiarra. Musulmana. Kroaziarra. Zibila. OROZ / DIARIO DE NAVARRA

zionalismoa Espainiaren gobernatzen sartzea. Eta trebea izan zen PPri duen kontraesan bai gogoraztean, egun batean administrazio bakarra eskatzen duen bitartean hurrengoan periferiako administrazioa 'mehartzeak' Estatu desegitea esan nahi duela esaten baitu. PSOEri dagokionez, Gonzalezek Gerrak botatokia altxatu zuen bera beti oreakua izan de-

la esan baitzuen, eta horregatik kritikak jaso dituela. Eta Gobernuarekiko behar adinako kohesio eta identifikazioa lukeen batzorde eragile baten alde agertu zen, horretan gerrismoak egon beharko lukeelarik. Azkenik, ekonomia handia jo duela baina susperraldia motela izango dela eta enpleguak erreakzionatzeko zerbait itxaron beharko duela baieztatu zuen

—atzo Espainiako Bankuak argitaratutakoak bezalako datuak erabiliz—. Alor horri dagokionez, lan erreformari irmo baino gehiago oste oso ekin zaiola zehaztu zuen. Laburtuz, ukitutako hiru gaietan —gobernuaren egonkortasuna, PSOEren kohesioa eta ekonomiaren suspertzea— Gonzalez optimista barik animoso agertu zen. **JUAN TAPIA**

ZUZENDARIARI

Nazionalismoa

Astehenean Euskal Telebistako eztabaida sail baten minutuetara heldu nintzen, eta beste saio askotan bezala, akats sakon bat somatu nuen bertan.

Kontzeptu bati buruz ari ziren eztabaida gogorren eta kontzeptuaren definizio onartua egin gabe zeukaten.

Horrela zirudien behintzat ni heldu nintzenean, batzuk era bateko nazionalismoaren apologia egiten eta besteak beste era batekoa gaitzetsiz.

«Jaunak: Nazionalismoa hauxe da, ados?» — «Bai, ados» esan arte ez dago eztabaidatzerik ona edo kaltegarria izan den edo daitekeen.

Egin dezagun adibidez, frutari buruzko eztabaida. Aurreneko finkatzerik ez badago, batzuk berdea dela esango dute beste batzuk gorria dela dioten bitartean, eta hirugarren eta beste abar batzuk horia, morea edo beltza... guztiak arrazoi dutelarik.

Eztabaida baino lehen, definizioa da beharrezkoa. Zer den azaldu beharko da lehengo, nolakoa den argitzea.

Ezin daiteke, beraz, onartu, nazionalismoa (nazionalismo guztiak, bada ez bada azpimarratuz) berez gaiztoa dela, zer denik oraindik finkatu gabe.

Alderantziz, honako hau da benetako axioma: Nazionalismoa, beste edozein bezala, ez da berez ona, ez gaiztoa.

Nazionalista edo nazionalismo batzuren izean antolatutako ekintza edo ta joerak

izan daitezke salagarri, baina ez nazionalismoa bera.

Honako hau adierazi nahi nuen funtsean, gainera: Komunikabide askotan egiten diren eztabaida gehienetan ez dela finkatzen edo ta ez zaiela partaideei eskatzen gai buruzko definizio zehatzak, eta horrela gaitzen dela denbora asko, hitz berdinez gai ezberdinei buruz hitz egiten, edo gai berdina hitz ezberdinez errepikatzen, eta azkenean inork inor ez bereganatzen, inork inoiz iritziarik aldatzen...

Horrela beharko du, agian?

JOSE ANTONIO VILLAR
Arrasate (Gipuzkoa)

Jexuxmariri, adaitasunez

Aspaldidanik dator gurekiko erakusten duzun egonezina. Hala adierazi diguzu, batzutan pribatuki, bestietan publikoki. Hala islatzen da ere, zuk zeuk —Jexuxmari Zalakin bezala— urtarilaren 28an, orri honetan bertan, argitaratu zenuen zutabetea. «Esaiaarekin kolaboratzea» eta «noraezean ibiltzea» dira, batik bat, aurpegiaritzen dizkiguzun kritiak. Igaro berri diren Klausorako hauteskundeetan, gurekiko zenuen Ramon Zallok buruzten zeren zerrendan azaltzea izan omen da zure barnemina piztuarazi duena. Guzti honen aurrean eta gauzak publikoki argi gera daitezzen, zera esan nahi diguzu:

1.- Klaustrero zerrendak osatzerakoan,

LABen jarraibide eta erabakiak unibertsitatearekiko politika orokor batetan oinarritu direla, gertakizun puntualak testuinguru zabal horretan kokatu behar direlarik. Ez ahaztu Ramon Zallo ez dela LABkidea, zu zeu ez zaren bezala.

2.- Auzi lagzarrari honetan ongi baino hobeto dakizula nortzuk diren arduradun garrantzitsuenak: agintari akademikoak, eta nortzuk kaltetu nagusiak: ikasleak eta zuek, noski. Ez ahaztu ere, LAB beti egon dela eta 'egongo dela' neurri errepresiboen aurka. Honen ondoren, zera kritikatu nahi dizugu:

— Asanbladan eta LABen onartutako erabakien aurrean behin eta berriz erakutsitako mesprezu eta dinamika berezileak.

— Zure eta zure Lelioako taldekideen praktika *immobilista*, zeina Unibertsitateko indarrik atzerakoienak metatzeko baliagarria oso izan den.

3.- Gogoan izan hemen inor ez dela egia absolutuaren gordelaria, ezta ere abertzaletasun maila neurtzeko jaioa.

4.- Bizkitartean jakin ezazu LAB sindikatuen elkarrizketaren bidea oinarritzat duen konponbidearen alde lan egiten jarraituko duela, gure sindikalgiatza baita, eta ez beste edozein.

Herri honek behar duen Euskal Unibertsitate erakitzeko bidea luzea da. Guztion kemena eta indarra beharrezkoak izanik, ezinbestekoa den elkarlanean atea LAB sindikatuen beti du zabalik.

KAZETARITZAKO LAB

Bilbo

GAIA JARRITA

Bihar San Balentin



Otsailaren hamalaua da maiteminduen eguna, maitasunaren fortuna, egun hau dela eta ez dela ospatu izan duguna. Berdin da mutil edota neska, entzun zaidazu laguna, opari musu kuttuna, azken batean inporta dena dugu hemen maitasuna.

JOSU ZELAIA

Egunkaria

Batzorde: Patekidea; 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



ODJIKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDA

Kontseilari Ordezkaririk: INAKI URIBI

Gerentea: FERMIN LAPKANO

Zuzendaria: MARTELLO OFAMENDI

Zuzendariordeak: LUZIAN ETXEZARRAKETA

Publikizatzaia: MARI JOSE SARASA

Espainiako Publikizatzaia: PUBLICITAS

Capitulu Haya 1, 2, 20010 Madril / # 91 555 11 00 / Faxa: 91 526 29 29

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pablikoki / 20169 Lasarte-Oria / # 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publikatzaia eta Administrazioa: Antso Jaktuna, 16-1 / 20010 Donostia / # 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Nafara: San Antonio, 20-1. ezker, 01005 Gasteiz / # 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Abarra: Iratxe Monastegui, 45-13. esk. / (Irindin dorre) / 31011 Iruñea / # 17 80 78 79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zabalberri Enparantza, 2-1. ezker, 48003 Bilbo / # 410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14, 1 / 503 Posta kutsaila, / 64100 Baiona / # 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11